



2014-11-13 JUSTIZIA SAILAREKIN BILERA - AUZITEGIKO MEDIKUAK: PAREKATZEA, BALORAZIOA, HOMOLOGAZIOA

Adar jotze amaigabea hasieratik amaieraraino. Sailak aurkeztu zuen auzitegiko mediku guztientzat soldata jaitzieraren proposamena. Lakuakoekin aurkeztutako lan sarien egokitzapenak jasotzen du auzitegiko medikuek Lakuakoek baino gehiago kobratuko dutela, hala dio Sailak. Baina, halaber, ahaztu omen zaio Lakuako medikuek ez dituzten hamaika funtzio eta zeregin dituztela auzitegiko medikuek.

1998 urtetik auzitegiko medikuei ukatu zaie euren parekatzea. Garai haietan esaten zen Osakidetzarekin parekatu behar zirela, geroago Ministeritzarekin, lurralde horietakoek baino gutxiago kobratzen baitute, eta orain, sail hau tematzen da Lakuakoekin izan behar dela. Inolako soldata igoerarik eskaini nahi ez dielako tematzen da, eta horretarako, oso ondo datorkie Lakuako parekatze hori.

LABek gogorazi zion bere garaian laguntzaileentzat eta izapidegileentzat maila bat gehiago eta kudeatzaileentzat bi maila gehiago parekatzea eskatu genuela. Eta azkenean, greban eskatzen genuena baino maila bat gehiago lortu genuen, igoera lineala eta kidego bakoitzeko. Hori da gaur egun sindikatu honek eskatzen duena auzitegiko medikuentzat. Halere, Osakidetzarekin parekatzea errazagoa da, auzitegiko medikuek eskatzen duten bezala (Osakidetzako mediku maila minimoa). Baina ez da zaila diru kopuru horiek Lakuako mailetara egokitzea. Hau baita bere garaian kolektiboarentzat eskatu genuena.

Gaur egungo Sailak gogorazten digu grebara eraman ziguna. Izan ere, bereari gogor eutsiz, Sailak auzitegiko medikuak baztertu nahi ditu parekotasuna lortu genuen gainontzekoengandik bereiziz. Baina, aurkeztutako proposamenaren atzetik gauza ilunagoak ikusten dira: Lakuako medikuek euren lanpostuen balorazioa pasa baitute. Hots, ez die auzitegiko medikuei diru gehiago eman nahi, eta bateratzen ditu parekatzea eta balorazioa.

Bere garaian sindikatuen plataforman lanpostuen balorazioa eskatzea eztabaidatu genuenean, LABek ezezko botoa eman eta esplikatzen zuten krisi garai hauetan eta zuzendaritza honekin lanpostu balorazioa eskatzea itzelezko hanka-sartzea zela. Sailak ez baitu negoziatzen: eskaera orori ezetza ematea eta bere baldintzak inposatzea ez da negoziatzea. Eta orain auzitegiko medikuekin gertatzen den legez gerta daiteke lanpostuen balorazioekin. Esatea ezin dutela maila jaitzi IV Akordioak esaten duelako ez da zilegi. Sail honek akordio bera behin eta berriz urratu duelako, eta nahi duenean amaiera eman diezaioke, V akordio negoziatzera behartuz. Gure ustez, Sail honekin ondo atera gaitezkeela errore handi bat da. Pentsatu behar dugu lanpostu balorazio honen emaitzek luze iraungo dutela, beraz, honen ondorioak pairatuko ditugula, zenbaitzuk erretretaraino ailegatuko gara.

Sailari galdetu genion zer zekien Erkorekak iragarritako lansari-igoerari buruz. Ideiarik ez zutela erantzun ziguten, baina bazekiten 1 atalean, lansarietan, aldaketarik ez zegoela. Hortik, hainbat ondorio atera dezakegu: lehena, auzitegiko medikuen parekatzea iruzurra eta gezurra dela. Bigarrena, lanpostuen balorazioa egin ezker, diru kopurua beste era batean banatuko dutela, hau da, batzuei kendu, beste batzuei emateko.

Balorazioan ekin eta ekin ibiltzeak eta homologazioaren alde ez borrokatzeak harritzen gaitu. Eusko Jaurlaritzaren langileek lansarien igoera izan dute eta IV Akordioak jasota du Eusko Jaurlaritzan izandako lansari igoerek aplikazio zuzena izango dutela Justizia administrazioan. Baina auzitegiko medikuei aurkeztutako proposamenak ez die homologazioa eskaintzen eta zuzenki parekatzen ditu Lakuako langile ez homologatuekin.

Sailarekin liskar handia dugu aurrean, behin eta berriz ezer negoziatu nahi ez dutela demostratzen baitigute, Sailak bere erabakiak hartzen ditu eta berdin zaizkio langileen asmoak eta aldarrikapenak. Auzitegiko medikuen kolektiborako benetako parekatze proposamena egingo dugu eta Sailari exijituko diogu bete dezan. Hori lortzeko baliabide guztiak erabili beharko ditugu eta ez dugu baztertzen edozein mobilizazio motarik.

LAB sindikatuko kideok lanpostuz lanpostu joango gara gure jarrera esplikatzen eta zertan dautzan hiru kontzeptuak argitzera: parekatzea, balorazioa eta homologazioa.

EXPERTIZAZIOAK

LABek galdetu zuen expertizazioen inguruan zer asmo zuen Sailak eta ea lanpostu guztiak aterako zituzten berariazko lehiaketan. Laster argitaratuko da Gasteizen experto baten lanpostuaren berariazko lehiaketa eta beteko dela ziurtatu diete. Oraingoz, ez dute gehiago ateratzeko asmorik.

BETEGABEKO LANPOSTUA DURANGON

Aspalditik Durangon Izapidetze kidegoaren lanpostu bat bete gabe dago eta, erantzun zuten AMEri eskatu dioten txostenak ez du frogatzen lanpostu hori betetzeko nahiko lan dagoenik. Dena dela, beste txosten bat eskatu dute jakiteko ea Bilbon beharrezkoa den, lan-karga aintzat hartuta. Horrela lanpostu bat kenduko zuten Durangon baina beste bat Bilbon sortu. Halere, esan zuten bidalitako informazioagatik ezin dutela ondorioztatu lanpostu hori beharrezkoa denik. LABek ez du lanpostu baten amortizazioa onartuko, beste lanpostu bat sortzen ez bada, edo AMEIn edo, beharrezkoa izan ezkerro, zerbitzu orokorrean, Balmasedan gertatu den moduan.

Euskal Herrian, 2014-11-18